



ELENA ODRIUZOLA

ELENA ODRIUZOLA

***Azala:*** “La princesa y el guisante” libururako.  
Akuarela eta tinta.  
2003.

***Testua:*** Gustavo Puerta Leisse.

***Itzulpena:*** Arantxa Epelde.

***Argazkiak:*** Ricardo Iriarte.

## Harra, liskarbide

Ohe gainean eserita dago, ilea harrotuta, kamisoitan eta aurpegia bere onetik aterata. Begi txiki-txikiak dituen arren eta begizulo ilunez inguratuta badaude ere, bizitzen ari den nahasmena erakusten du bere begiradak. Ahoak ere nabarmen adierazten du bere egonezina, eta masail gorriek agerian uzten dute halako egoera baten aurrean sentitzen duen lotsa.

Koltxoi bigunak eta manten estanpatu dotore eta nahasiak pertsonaiaren errege-jatorria adierazi badezakete ere, bere magalean irekita duen liburuak lorik gabeko gaua iradokitzen du, irakurketa urduriari eta ez oso lagun-garriari emandako gaua.

Loa horrela galtzeko arrazoia ezkutu ilar bat besterik ez da. Ale hori, itxuraz ia garratzirik gabekoa, printzesaren benekotasuna frogatzeko barometroa da. Erreginareen begietan ilarrak ziurtatuko du “benetako printzesa” den ala ez. Irakurlearen begietan, aldiz, proba horrek flema aristokratikoaren halako parodia baten zantzuak edukitzeaz gain, barregarri uzten ditu dirudunen hipersentiberatasuna eta itxurakeria. Azken finean, batzuek eta besteek anker jokatzen dute, ekaitzgau batez, bere patuak bidalita, blai-blai eginda, aterpe bila jauregiko atea jotzen duen dontozeila txiroaren aurka.

Elena Odriozolak egindako ilustrazioek, ordea, beste irakurketa bat irekitzen diote Hans Christian Andersenren ipuinari. Jarrera parodikoa edo gaitzespenekoa hartu beharrean, zeharo bestelako interpretazioa egiten dio printzesa iraindu eta babesgabeari, eta ikuspegi hori erabat kontrajartzen zaio

neskatxa hori izaki harro, fribolo eta apetatsu modura azaltzen duen ohiko karrikatura-bertsio gastatuari. Hori horrela, bere planteamendua egitean enpatiatik abiatzen da, eta ikuspegi hori hartzen duenean aukera ematen digu ipuinaren azpian bestelako doinu psikologiko bat, fina bezain zentzuzkoa, topatzeko, eta beste bertsio ilustratu batzuk baztertzeko. Odriozolak proposatzen duen irakurketan, printzesa bere izaera eta egoeraren biktima da, eta erregina, berriz, borroko modura erakusten digu.

Hala, erreginak hogeiki koltxoi eta lumazko beste hogeiki edredoiaren azpian sartutako ilarrak beste esanahi bat hartzen du guretzat: jada ez da proba inozo bat; aitzitik, amagarribea potentzialaren asmo txarrak agerian uzten ditu, ez baitu inolako zalantzarik erakusten ezkongaiari halako proba krudel eta maltzur bat eginarazteko. Baina, saia gaitezen une batez erreginareen jokabidea ulertzen. Zergatik uste du, ordea, proba horren bidez printzesa benetakoa dela frogatuko duela? Odriozolaren printzesak erakusten duen ezinegonak pista bat ematen digu. Protagonista zurbila proba horretatik onik atera zela segurtasun osoz ezin esan badaiteke ere, argi eta garbi gelditu zen bazuela benetako printzesen berezko sensibilitate-maila. Bai bere atsekabea, bai printzearen eskua lortu nahi izatea neurritz kanpoko sensibilitate horretatik datoz. Ildo horretan, Odriozolak moztutako kentzen dio erreginari: amarru horrekin erreginak, berez, bere semearentzako pertsona ahul eta babesgabea bilatu nahi du, eta, zergatik ez, bere

asmo makiavelikoak lortzeko manipularia izango dena.

Ilustratzailea irakurle pribilegiatua da. Aurrez idatzitakoaren interpretazio pertsonala egiteko eskubidea du, testuaren aukerak zabaltzeko, esanahi berriak eraikitzeko, beste batzuen hitzen bidez bere gauzak esateko... Hala ere, pribilegio hori irakurleengana ere zabaldu daiteke. Liburu ilustratu bat irakurtzen dugunean, gogoratzen gara irakurtzea askatasun ekintza bat dela, eta ekintza horretan egileak (idazlea eta/edo ilustratzailea) sortze-prozesuaren zati bat baino ez duela betetzen, izan ere irakurlearen lana baita prozesu hori osatzea, bere interpretazioarekin laguntzea eta hala arte-lana bukatzea.

*Printzesa eta ilarra* (Anaya, 2003) ipuineko ilustrazioen gure irakurketa eta Andersenren ipuinaren gainean Odriozolak egiten duen irakurketa oso antzekoak dira. Hala izango ez balitz, eta edozein arrazoi dela-eta ez bagara interpretazioaren alorrean sartzen, orduan ez dugu sorkuntzan parte hartzen, ez gara artearen zati aktibo izango. Odriozolaren ilustrazioak arte-lantzat har daitezke, eta ez soilik berez duten edertasunagatik, ez soilik erakusketa-gela honetako paretetan zintzilikatuta daudelako, baizik eta ikusleei aukera ematen zaielako sortze-prozesu batean parte hartzeko eta beti irakurketa berriak sortzeko; izan ere, azken finean, irakurlearen askatasuna aldarrikatzen dute; askatasuna beste horren irakurketan parte hartu eta “bere” egiteko.

Elena Odriozola haurrentzako liburuaren ilustrazioaren artean moldatzen da hobekien. Horrenbeste infantilismoaren aurrean, aurrez prestatu eta eskolan

erraz jateko horrenbeste materialen aurrean, Odriozolak estereotipoetatik urruti dagoen printzesa eskaintzen dio umeari, eta irudi horretan haurrak helduek onartu nahi ez dizkioten bere sentimendu asko ikus ditzake. Baina bere interpretazioa oraindik ere urrunago doa. Printzesa eta ilarra ipuinaren bere bertsioak helduen munduari buruz eskaintzen duen irudian, umearen beharrak entzun eta errespetatu beharrean, bere borondatea erreprimitu eta izaki otzan eta esanekoan bihurtzeko eskatzen dio. Liburua behin eta berriz irakurri ondoren, hipotesi bat iragarri daiteke. Alegia, gaur hauskor eta sentibera den printzesa, etorkizunean erregina kalkulatzaile eta hotza izango dela, eta ekaitz-gau batean ilar bat jarriko duela hogeitakortxoiren eta lumazko hogeitakortxoiren azpian.

Umeentzako liburu ilustratuak gauzen berezko egoera zalantzan jartzeko daude, irudimenaren domestikazioa urratzeko, enpatia bultzatzeko eta askotan besteengan geure buruetan ikusten ez duguna ikusteko. Behin eta berriz irakurri beharrekoak dira. Haurrek badakite hori eta ondo pasatzen dute. Irakurtzen den bakoitzean zerbait berria azaltzen da, gauza berriren bat gertatzen da: irakurtzen duen helduaren eta entzun eta ikusten duen umearen arteko lotura sakondu egiten da; idazlea, ilustratzailea eta irakurleak lotzen dituen sormen-prozesua berritu egiten da; irakurketa horrek uzten duen aztarna emotiboa sendotu egiten da. Umeen liburuak, errealitatearen hogeitakortxo eta hogeitakortxoaren azpian, askatasunaren ilara ezkutatzen dute, sormenarena, fantasiarena eta enpatia-rena. Eta Odriozolaren eskua izan zen hori hor jarri zuena.



“Aplastamiento de las gotas” libururako  
*Akrilikoa eta tinta.*  
2008.



“Aplastamiento de las gotas” libururako.  
*Akrilikoa eta tinta.*  
2008.



“Aplastamiento de las gotas” libururako.  
*Akrilikoa eta tinta.*  
2008.



“Aplastamiento de las gotas” libururako.  
*Akrilikoa eta tinta.*  
2008.



“Oda a una estrella” libururako.  
*Akrilikoa eta tinta.*  
2009.



“Oda a una estrella” libururako.  
*Akrilikoa eta tinta.*  
2009.



“Oda a una estrella” libururako.  
*Akrilikoa eta tinta.*  
2009.



“Oda a una estrella” libururako.  
*Akrilikoa eta tinta.*  
2009.



“The farmer and his rice paddy” libururako.  
*Akriliko eta tinta.*  
2009.



“The farmer and his rice paddy” libururako.  
*Akriliko eta tinta.*  
2009.



“The farmer and his rice paddy” libururako.  
*Akriliko eta tinta.*  
2009.



“The farmer and his rice paddy” libururako.  
*Akrilikoā eta tinta.*  
2009.



“Euskal mitologia” libururako.  
*Tinta, akuarela eta akriliko.*  
2006.



“Euskal mitologia” libururako.  
*Tinta, akuarela eta akriliko.*  
2006.



“Euskal mitologia” libururako.  
*Tinta, akuarela eta akriliko.*  
2006.



“Euskal mitologia” libururako.  
*Tinta, akuarela eta akrilikoa.*  
2006.

## El guisante de la discordia

Se halla sentada sobre la cama, despeinada y en camisón, con el rostro descompuesto. A pesar de que sus ojos son diminutos y están rodeados por oscuras ojeras, su mirada consigue transmitir la perturbación que experimenta. La boca enfatiza el peso de su malestar, mientras que el rubor de sus mejillas evidencia la vergüenza que padece ante semejante situación.

Si la factura de los mullidos colchones y del hermoso y variado estampado de las mantas puede dar cuenta de la real ascendencia del personaje, el libro que descansa abierto sobre su regazo sugiere una noche de insomnio en la que la lectura fue intranquila y de poca ayuda.

La causa de semejante desvelo no es otra que un recóndito guisante. Este grano, en apariencia insignificante, es el barómetro de la autenticidad de la princesa. A los ojos de la reina, certificará si se trata de una “princesa de verdad” o no. A los ojos del lector, la prueba no está exenta de cierta parodia de la flema aristocrática e incluso ridiculiza la hipersensibilidad y el amaramiento de las clases pudientes. Unos y otros, en definitiva, se ensañan contra la pobre y empapada doncella que una noche de tormenta, empujada por el destino, llama a las puertas de palacio en busca de cobijo.

Las ilustraciones aportadas por Elena Odriozola abren una nueva lectura al cuento de Hans Christian Andersen. Lejos de asumir una actitud paródica o condenatoria, la interpretación que hace de la agraviada e indefensa princesa se contrapone a aquellas

manoseadas versiones caricaturescas que muestran a la señorita como una criatura creída, frívola y caprichosa. De este modo, su planteamiento parte de la empatía y al adoptar esta perspectiva nos permite hallar en el cuento un trasfondo psicológico tan sutil como certero, desaprovechado por otras versiones ilustradas. En la lectura que propone Odriozola la princesa es considerada como víctima (de su naturaleza y de la situación) y la reina es descubierta como victimaria.

Así, el guisante depositado por la monarca debajo de los veinte colchones y de los veinte edredones de pluma adquiere un nuevo sentido ante nuestros ojos, ya no se trata de una prueba inocente, sino que revela la mala idea de la potencial suegra que no duda en someter a la pretendiente de tan cruel y subrepticio examen. Ahora bien, tratemos por un momento de comprender el comportamiento de la reina, ¿por qué a sus ojos este experimento tiene el poder de acreditar la autenticidad de la princesa? El malestar expresado de la princesa de Odriozola nos da una clave. Aunque no se puede decir con propiedad que la pálida protagonista haya salido airosa del examen, sí evidenció que contaba con el grado de sensibilidad propio de las princesas de verdad. Tanto su pesar como su aptitud para pretender la mano del príncipe proceden de esa exacerbada sensibilidad. En este sentido, Odriozola desmascara a la reina: detrás de esta estratagema lo que en verdad su majestad desea es encontrar una persona vulnerable y desvalida para su vástago

real y, por qué no, que pueda ser manipulable por su maquiavélica voluntad.

Un ilustrador es un lector privilegiado. Tiene la prerrogativa de aportar su personal interpretación a un texto que lo precede, de ampliar sus posibilidades, de esculpir nuevos significados, de decir cosas propias a partir de palabras de otros... Sin embargo, este privilegio también es extensible al lector. Al participar de la lectura de un libro ilustrado recordamos que leer es un acto de libertad en la que el autor (el escritor y/o el ilustrador) sólo aportan una parte del proceso creativo, pues la tarea del lector es completar este proceso, es contribuir con su interpretación y concluir así la obra de arte.

La lectura que nosotros hacemos de las ilustraciones de *La princesa y el guisante* (Anaya, 2003) es análoga a la lectura que hace Odriozola del cuento de Andersen. Si no sucediese así, si por la razón que fuera no nos adentramos en los territorios de la interpretación, entonces no participamos de la creación, no formamos parte activa en el arte. Las ilustraciones de Odriozola pueden ser consideradas como obras de arte, no sólo por su intrínseca belleza, no sólo porque cuelguen de las paredes de esta sala de exposiciones, sino porque posibilitan que el espectador participe de un proceso creativo en el que siempre tienen cabida nuevas lecturas; porque, en definitiva, reivindican la libertad del lector de formar parte y hacer suya la lectura de un otro.

El arte en el que Elena Odriozola mejor se desenvuelve es el de la ilustración de libros para niños. Ante tanto infantilismo, ante tanto material pre-

cocido y de fácil digestión escolar, Odriozola ofrece al pequeño una princesa alejada del estereotipo, en la que el niño puede ver reflejados sentimientos propios que muchos adultos no quieren reconocer en él. Pero su interpretación incluso va más allá. Su versión de *La princesa y el guisante* muestra la imagen de un mundo adulto que lejos de atender y respetar las necesidades del niño (y de la princesa), le exige reprimir su voluntad y convertirse en un ser dócil y obediente. Luego de varias relecturas del libro, podemos aventurar la hipótesis de que es muy probable que la hoy frágil y vulnerable princesa, en el futuro sea una calculadora y fría reina que, en una tormentosa noche, depositará un guisante debajo de veinte colchones y de veinte edredones de pluma.

Los libros ilustrados para niños están para cuestionar este estado de cosas, para resquebrajar la domesticación del imaginario, para propiciar la empatía y poder ver en el otro lo que muchas veces no alcanzamos ver en nosotros mismos. Exigen ser leídos una y otra vez. Los niños lo saben y disfrutan de ello. En cada lectura hay algo nuevo que aparece, hay un cambio que acontece: el vínculo entre el adulto que lee y el niño que escucha y ve, se profundiza; el proceso creativo que involucra al escritor, al ilustrador y a sus lectores se renueva; la huella emotiva que esta lectura deja en nuestra memoria se afianza. Los libros para niños esconden debajo de los veinte colchones y de los veinte edredones de la realidad, el guisante de la libertad, la creatividad, la fantasía y la empatía. Y fue la mano de Odriozola quien lo depositó allí.







2012ko urtarrilak 17 - martxoak 18  
17 enero - 18 marzo 2012

### ORDUTEGIA / HORARIO

Egunero 18:00 - 20:00

Todos los días 18:00 - 20:00



*Zarauzko Udala*  
KULTURA SAILA